

VITORIA GASTEIZ green capital

MARTXOAK 8. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

8 DE MARZO. DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

## “Arazo unibertsala, oraindik guztiok lortzeke dugun helburua”

1975ean, Nazio Batuen Batzar Orokorrak adierazi zuen aurrerantzean Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna izango zela. Baina, mundu luze-zabaleko emakumeak aspalditik antolatu dira, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna eskatzeko, emakume eta gizonentzat gizarte bidezkoago eta berdinzalegoa erreklamatzeko.

Bost kontinenteetako hainbat emakumek helburu bera dute, hau da, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean aurrera egitea eta denon arazo unibertsal honi aurre egitea: eskubideak, boterea, baliabideak eta onurak lortzeko, gauzatzeko eta kontrolatzeko orduan, emakume eta gizonen arteko desberdintasunei.

Vitoria-Gasteizko Udalaren ustez, ezinbestekoa eta beharrezkoa da, alde batetik, emakumeen parte hartze soziopolitikoa sustatzea eta udalerriko emakumeen elkarteen eta elkarte feministen egitura sendotzea; eta, bestetik, emakumeen eta udal erakundeen artean zenbait aliantza sortzea, berdintasunerako udal politikak gauzatzearren.

Hori dela eta, Udalak azkenaldian jabekuntzaren lana agerian jarri eta balioetsi nahi izan du, dauden diskriminazioak salatu, eta mugimendu feministak eta emakume-elkarteek egiten duten eskubideen aldarrikapena egin. Horien lanari esker batez ere, baina baita erakunde publikoek, gizarte eragile batzuek eta gizarte osoak egin duten ahaleginari esker ere, aurrerapen nabarmenak lortu dira, nahiz desberdintasunak jarraitu egiten duen gure bizitzaren esparru guztietan.

Aurten ere, Udalak ikustarazi eta aintzatetsi nahi du hainbat emakumek gure hirian egiten duten lana. Izan ere, hainbat elkarte feministatako eta emakume-elkartetako emakumeek, bertokoak nahiz beste herrialde batzuetatik etorritakoak (Ekuador, Mali, Pakistan etab.), aurrekoek egindako lanaz baliatuta, aspalditik egiten dute lan Gasteizen, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna hurbilagoko errealitate bihurtzeko.

Euren lana eta parte-hartze soziopolitikoa ikustarazteko eta sustatzeko, Vitoria-Gasteizko Udalak **Martxoaren 8**rako ondoko elkarteek proposatu dituzten ekimenak babestu eta zabaldu nahi ditu :

- María de Maeztu Forum Feminista

- Jalgi-Surgir Emakume Elkartea

- Maliko Djekafo Emakumeen Elkartea

- ASVE (Euskadi eta Ekuador arteko Elkartasuna) Elkartea

- Eskubide-berdintasunaren aldeko emakumeak “MUID”

## “Un problema universal, un objetivo común aún por conseguir”

En 1975 la Asamblea General de Naciones Unidas estableció el 8 de marzo como Día Internacional de las Mujeres. Sin embargo, hace mucho tiempo ya que las mujeres de todo el mundo vienen organizándose para reclamar la igualdad real de derechos entre mujeres y hombres, para reclamar una sociedad más justa e igualitaria para mujeres y hombres.

Mujeres de los cinco continentes, con un objetivo común, el avance hacia la consecución de una verdadera igualdad entre mujeres y hombres que permita dar respuesta también a una problemática universal y común: la desigualdad existente en el acceso, ejercicio y control de derechos, poder, recursos y beneficios por parte de mujeres y hombres.

El Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz entiende como fundamental y necesaria tanto la participación sociopolítica de las mujeres y el fortalecimiento del tejido asociativo de mujeres y feminista del municipio, como la construcción de alianzas entre éstas y las instituciones municipales para la elaboración de las políticas locales de igualdad.

Es por ello que durante los últimos años ha querido visibilizar y reconocer la labor de empoderamiento, denuncia de las discriminaciones existentes y reivindicación de derechos que el movimiento feminista y asociativo de mujeres viene realizando. Porque, a pesar de los significativos avances conseguidos gracias fundamentalmente a su trabajo, pero también al de las instituciones públicas y de numerosos agentes sociales y de la ciudadanía en general, la desigualdad sigue estando presente en todos los ámbitos de nuestra vida.

También este año el Ayuntamiento quiere continuar visibilizando y reconociendo el valor del trabajo que realizan muchas mujeres en nuestra ciudad. Son en definitiva mujeres pertenecientes a diferentes asociaciones feministas y de mujeres, mujeres locales y también procedentes de diferentes países como Ecuador, Mali, Pakistán,…que, aprovechando el avance e impulso del trabajo realizado por sus antecesoras, desde hace ya tiempo contribuyen en nuestra ciudad a que el deseo de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres sea una realidad cada vez más cercana.

Con el ánimo de visibilizar y apoyar su trabajo y su participación sociopolítica, el Servicio de Igualdad del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, quiere dar difusión y apoyar las iniciativas propuestas por las siguientes asociaciones para celebrar el **8 de marzo**:

- Forum Feminista María de Maeztu

- Asociación de mujeres Jalgi-Surgir

- Asociación de mujeres de Mali Djekafo

- Asociación Vasco Ecuatoriana ASVE

- Mujeres Unidas por la Igualdad de Derechos “MUID”

Berdintasunerako Zerbitzuak, gainera, egun hori ospatzeko elkarteek programatu dituzten jardueretan parte hartu nahi du, eta herritar guztiei ondoko egun eta tokitan biltzeko gonbitea egiten die:

El Servicio de Igualdad quiere así mismo compartir con las asociaciones las actividades que estas han programado para conmemorar esta fecha e invita a toda la ciudadanía a que se sume a ellas en las siguientes fechas y lugares:

| JARDUERA<br>ACTIVIDAD | ANTOLATZAILEA<br>ORGANIZA | EGUNA<br>DÍA | ORDUA<br>HORA | TOKIA<br>LUGAR |
|---|---|---|---|---|
| ERAKUSKETA "Emakumeak. Afganistan"<br>EXPOSICIÓN "Mujeres. Afganistán" | María de Maeztu Foro Feminista<br>Fórum Feminista María de Maeztu | 05-03-2015 al 03-05-2015 | | Montehermoso Kulturunea / Centro Cultural Montehermoso |
| INAUGURATZEKO HITZALDIA "Afganistan: emakumeek berdintasunaren alde egiten duten borroka"<br>CONFERENCIA INAUGURAL "Afganistán: la lucha de las mujeres por la igualdad" | María de Maeztu Foro Feminista<br>Fórum Feminista María de Maeztu | 05-03-2015 | 19:00 h. | Ortuño aretoa, Montehermoso Kulturunea / Sala Ortuño, Centro Cultural Montehermoso |
| "Emakumea, ahotsa eta bertsoa" POESIA-ERREZITALDIA<br>RECITAL DE POESÍA "Mujer, voz y verso" | Jalgi-Surgir Emakume Elkartea<br>Asociación de mujeres Jalgi-Surgir | 13-03-2015 | 19:00 h. | Martín de Salinas aretoa, Goiuri Jauregia / Sala Martín de Salinas, Palacio Villasuso |
| ZINE-FORUMA: "Clara Campoamor. La mujer olvidada"<br>CINE-FÓRUM "Clara campoamor. La mujer olvidada" | Berdintasunerako Zerbitzua<br>Servicio de Igualdad | 18-03-2015 | 18:30 h. | Ortuño aretoa, Montehermoso Kulturunea / Sala Ortuño, Centro Cultural Montehermoso |
| "Ka fanga di musoma, emakumeen boterea" III. TOPAKETA<br>III ENCUENTRO "Ka fanga di musoma / El poder de las mujeres" | Maliko DJEKAFO Emakumeen Elkartea<br>Asociación de mujeres de Mali "DJEKAFO" | 21-03-2015 | 16:30 h. | Erabilera Anitzeko Aretoa, Iparralde Gizarte Etxea / Sala Polivalente, Centro Cívico Iparralde |
| "Murrizketak berdintasunean: murrizketak demokrazian" HITZALDIA<br>CONFERENCIA "Recortes en igualdad: democracia recortada" | María de Maeztu Foro Feminista<br>Fórum Feminista María de Maeztu | 26-03-2015 | 19:00 h. | Betolaza Aretoa, Montehermoso Kulturunea / Sala Betolaza, Centro Cultural Montehermoso |
| "Emakumeen aztarnak"<br>"Huellas de mujeres" | Euskadi eta Ekuador arteko Elkartasuna Elkartea (ASVE)<br>Asociación Solidaridad vasco Ecuatoriana ASVE | 27-03-2015 | 19:00 h. | Ortuño aretoa, Montehermoso Kulturunea / Sala Ortuño, Centro Cultural Montehermoso |
| "Pakistaneko emakumeek berdintasunerako bidean egiten dituzten ekarpenak"<br>"Aportaciones de las mujeres pakistaníes en el avance hacia la igualdad" | Eskubide-berdintasunaren aldeko Emakumeak "MUID"<br>Asociación Mujeres Unidas por la Igualdad de derechos MUID | 28-03-2015 | 18:30 h. | Ortuño aretoa, Montehermoso Kulturunea / Sala Ortuño, Centro Cultural Montehermoso |

## ARGIBIDE GEHIAGO HEMEN:

igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org
945 16 13 45
www.vitoria-gasteiz.org/igualdad

**Sarrera librea izango da toki guztiak bete arte.**
**Zeinu-hizkuntzako interprete edo haurtzaindegi zerbitzua** behar baduzu, hiru egun lehenago eskatu ondoko telefono-zenbakiaren edo helbide elektronikoren bidez: 945 16 13 45 / igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

## MÁS INFORMACIÓN

igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org
945 16 13 45
www.vitoria-gasteiz.org/igualdad

**Entrada libre hasta completar el aforo.**
Si precisas **intérprete de lengua de signos y/o servicio de guardería**, solicítalo con 3 días de antelación en el teléfono 945 16 13 45 o por mail: igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

## MARÍA MAEZTU FORUM FEMINISTA (FFMM)
## FÓRUM FEMINISTA MARÍA DE MAEZTU (FFMM)

forumfeminista@yahoo.es

María Maeztu Forum Feminista emakumeen elkarte autonomo bat da, eta 1988an sortu zen. Euskal Autonomia Erkidegoa da elkartearen jarduera-esparrua, baina batez ere Gasteizen egiten du lan. Honakoa da elkartearen helburu nagusia: euskal bizitza publikoan eragina izatea, hausnarketa politikoaren, parte-hartzearen eta ekintza politikoaren bidez, horrela sexua dela-eta bazterketarik egiten ez duen gizarte berdintsuagoa lortzeko.

Forum Feministak sarean egiten du lan zenbait emakume-elkarterekin, Estatu mailan zein nazioartean. Gauzak horrela, orain dela 15 urtetik hona Afganistango emakumeen elkarteekin ari da lanean.

Gasteizen, hiru batzordetan dago banatuta Forum Feminista: "Feminismoaren teoria eta gizarte proiekzioa"; "Sareetako parte-hartzea eta erakundeen jarraipena", eta "Komunikazioa eta antolaketa".

Argibide gehiagorako, ondoko web orrian kontsulta daitezke memoriak eta urteroko planak: www.forumfeministamariademaeztu.org

El Fórum Feminista María de Maeztu (FFMM) es una asociación autónoma de mujeres, creada en 1988. Su ámbito de actuación es el País Vasco, aunque desarrolla su actividad principalmente en Vitoria-Gasteiz. Su misión es incidir en la vida pública vasca mediante la reflexión teórica, la participación y la acción política, para conseguir una sociedad igualitaria sin discriminación por razón de sexo.

El FFMM trabaja en red con otras organizaciones de mujeres, tanto en el ámbito estatal como internacional. Así, por ejemplo, colabora desde hace 15 años con asociaciones de mujeres afganas.

En Vitoria-Gasteiz, la asociación se organiza en tres comisiones: "Teoría y proyección social del feminismo"; "Participación en redes y seguimiento institucional", y "Comunicación y organización".

Para más información, en la siguiente web se pueden consultar las memorias y los planes operativos anuales: www.forumfeministamariademaeztu.org

**Martxoak 5, osteguna. 19:00etan**

ORTUÑO ARETOA. MONTEHERMOSO KULTURUNEA.

### INAUGURATZEKO HITZALDIA

**"Afganistan: emakumeek berdintasunaren alde egiten duten borroka"**; Mónica Bernabek eta Gervasio Sanchezek eskainiko dute.

Hizkuntza: gaztelania

**2015eko martxoaren 5etik maiatzaren 3ra.**

MONTEHERMOSO KULTURUNEA.

### ERAKUSKETA **"Emakumeak. Afganistan".**

Gervasio Sanchezen argazkiak eta Mónica Bernaberen testuak.

Erakusketa honen bidez, azaldu egiten da Afganistango emakumeek bizitzako esparru guztietan jasaten duten indarkeria estruktural eta endemikoa; guda-testuinguruak, zigorgabetasun orokorrak, hezkuntza ezak, erlijioaren manipulazioak eta abarrek sortutakoa. Zenbait eredutan oinarritutako balio-judizio sinplistetatik haratago —burkaren edo islamiar beloaren erabilera, besteak beste—, Afganistango emakumeek euren eskubideen alde egiten duten borrokaren erresistentzia ere azpimarratzen du erakusketak.

**Martxoak 26, osteguna. 19:00etan**

BETOLAZA ARETOA. MONTEHERMOSO KULTURUNEA.

### HITZALDIA **"Murrizketak berdintasunean: murrizketak demokrazian"**

Begoña San Josek eskainiko du.

Beste ekonomia-krisietan ez bezala, oraingoan, emakumeontzat generoen arteko zuloa enpleguaren eta soldaten esparruan handitzeaz gain, ekonomia feministak aipatutako "familia-koltxoia" ere indartu egin da. Langabeziaren eta murrizketen ondorioz, hainbat emakumek zaintzaile funtzioa gain hartu behar izan dute. Hori dela eta, feministok estrategia bat diseinatu behar dugu gizarte- eta genero-desberdintasunek ez dezaten emakumeon oraina eta geroa zapuztu.

Hizkuntza: gaztelania

**Jueves, 5 de marzo, 19:00 h.**

SALA ORTUÑO. CENTRO CULTURAL MONTEHERMOSO.

### CONFERENCIA INAUGURAL

**"Afganistán: la lucha de las mujeres por la igualdad"**, a cargo de Mónica Bernabé y Gervasio Sánchez.

Idioma: castellano

**Del día 5 de marzo al 3 de mayo de 2015.**

CENTRO CULTURAL MONTEHERMOSO.

### EXPOSICIÓN **"Mujeres. Afganistán".**

Con fotografías de Gervasio Sánchez y textos de Mónica Bernabé.

Esta exposición da a conocer la violencia estructural y endémica que sufren las mujeres afganas en todos los ámbitos de sus vidas, dado el contexto de guerra, la impunidad general, la falta de educación, la instrumentalización de la religión, etc. Más allá de juicios de valor simplistas basados en clichés, como el uso del burka o el velo islámico, también se incide en la resistencia de las mujeres afganas y la lucha por sus derechos.

**Jueves, 26 de marzo, 19:00 h.**

SALA BETOLAZA. C. C. MONTEHERMOSO.

### CONFERENCIA **"Recortes en igualdad: democracia recortada"**

a cargo de Begoña San José.

A diferencia de otras crisis económicas, en ésta las mujeres no sólo estamos sufriendo el aumento de la brecha de género en el empleo y los salarios, sino que asistimos a un refuerzo del llamado "colchón familiar" del que habla la economía feminista. El paro y los recortes están obligando a las mujeres a intensificar su papel de cuidadoras. Por ello, las feministas debemos diseñar una estrategia para que las desigualdades sociales y de género no frustren el presente y el futuro de las mujeres.

Idioma: castellano

## JALGI-SURGIR EMAKUMEEN ELKARTEA
## ASOCIACIÓN DE MUJERES JALGI-SURGIR

jalgi-surgir@hotmail.com
t. 645.968.955

21 bazkidek osatzen dute Jalgi-Surgir elkarte sozial eta kulturala. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alde lan egiteko helburua du; horretarako, historian, antzerkian eta literaturan emakumeek izan duten ikuspuntua erabiltzen du.

1991. urtetik, sortu zenetik alegia, elkarteak zenbait kultura-tailer gauzatu ditu antzerkiari, literaturari, idazketa sortzaileari, poesia-errezitaldiei, literatura-hizketaldiei eta abarrei buruz. Idazketa sortzaileko tailerrean parte hartu duten batzuek saria jaso dute literatura-lehiaketaren batean. Jalgi-Surgir elkarteak, gainera, Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoko Adiskideen Elkarteari ere laguntzen dio.

Jalgi-Surgir es una asociación de carácter social y cultural compuesta por 21 socias, que tiene como objetivo trabajar la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres desde el enfoque de la mujer en la historia, el teatro y la literatura.

Desde 1991, año de su constitución, la asociación lleva a cabo diversos talleres culturales sobre teatro, literatura, escritura creativa, recitales poéticos, tertulias literarias…Varias participantes del taller de Escritura creativa han sido galardonadas en Concursos literarios. Jalgi-Surgir también se involucra apoyando a la Asociación de amigos y amigas de la República Árabe Saharaui Democrática.

**Martxoak 13, ostirala. 19:00etan**

MARTÍN DE SALINAS ARETOA, VILLASUSO JAUREGIA.

### POESIA ERREZITALDIA

### “Emakumea, ahotsa eta bertsoa”;

Jalgi-Surgir Emakumeen Elkarteko Idazketa sortzaileko tailerrean parte hartu zuten zenbait emakumek idatzi dituzte errezitaldi honetako literatura-lanak.

Hizkuntza: euskara / gaztelania

**Viernes, 13 de marzo, 19:00 h.**

SALA MARTÍN DE SALINAS, PALACIO VILLASUSO.

### RECITAL DE POESÍA

### “Mujer, voz y verso”

Las composiciones literarias de este recital han sido escritas por las mujeres participantes en el taller de Escritura creativa de la Asociación de mujeres Jalgi-Surgir.

Idioma: euskera /castellano

**Martxoak 18, asteazkena. 18:30ean**

ORTUÑO ARETOA. MONTEHERMOSO KULTURUNEA.

## CINE-FORUMA

Laura Mañárekin

## "Clara Campoamor. La mujer olvidada" (2011)

filma ikusiko dugu

Laura Mañak zuzendu zuen filma. Maña zinema-zuzendari, aktore eta gidoilari espainiarra da.

CIMA (Emakume zinemagileen eta ikus-entzunezko komunikabideetako emakumeen elkartea) elkarteko bazkide sortzailea da.

Filmaren zuzendaria, Laura Maña, gure artean izango dugu Zine-forumaren hasieran, eta azalduko digu zergatik erabaki zuen filma bikain hau zuzentzea. Gainera, filma ikusi osteko zine-foruma dinamizatuko du.

### LABURPENA

1931n, Espainian, Bigarren Errepublika aldarrikatu zuten. Testuinguru hartan, emakumeak hautagarriak ziren, baina ezin zuten bozkatu. Clara Campoamor eta Victoria Kent Gorteetako lehen emakume diputatuak izan ziren, eta emakumeen eskubideen alde lan egin nahi izan zuten. Clara Campoamorrek bazekien lehendabizi erronka garrantzitsu bat zutela: emakumeen botoa. Handik aurrera, bere borroka ez zen batere erraza izan.

Hizkuntza: gaztelania

**Miércoles, 18 de marzo, 18:30 h.**

SALA ORTUÑO. CENTRO CULTURAL MONTEHERMOSO.

## CINE-FÓRUM

con Laura Mañá

Visionado de la película

## "Clara Campoamor. La mujer olvidada" (2011)

Película dirigida por Laura Mañá, directora de cine, actriz y guionista española.

Socia fundadora de CIMA, la Asociación de mujeres cineastas y de medios audiovisuales.

Para abrir el Cine-Fórum contaremos con la directora de la película, Laura Mañá, que nos hablará de los motivos que le llevaron a dirigir esta gran película y dinamizará el posterior cine-fórum tras la proyección.

### SINOPSIS

En el año 1931, en España se proclama la Segunda República. En este contexto, las mujeres son elegibles pero no pueden votar. Clara Campoamor y Victoria Kent son las primeras mujeres diputadas que pisan las cortes y se plantean muy firmemente luchar por los derechos de la mujer. Clara Campoamor sabe que eso pasa por una primera y gran conquista: el voto femenino. A partir de este momento, su lucha no será nada fácil.

Idioma: castellano

## DJEKAFO, MALIKO EMAKUME ELKARTEA
## ASOCIACIÓN DE MUJERES DE MALI “DJEKAFO”

djekafovitoriagasteiz@gmail.com

Etorkinak gara. Ingurugiro hori abiapuntutzat hartuta, eta errutinak bere pisua duela aintzat izanik, uste dugu funtsezkoa dugula elkartzea, helburu hauen alde:

- Gure integrazio kulturala bideratzea.
- Maliko emakume etorkinen egoera ezagutaraztea.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko asmoa duten jarduerak egitea.
- Lankidetza proiektuak egitea.
- Gure artean elkar konektatzea, motibatzea eta laguntzea.

Partiendo del contexto de que somos inmigrantes y donde la rutina impone su peso, consideramos que es fundamental que nos agrupemos para:

- Facilitar nuestra integración cultural.
- Dar a conocer la situación de las mujeres inmigrantes malienses.
- Desarrollar actividades destinadas a la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.
- Desarrollar proyectos de cooperación.
- Conectarnos, motivarnos y apoyarnos.

**Martxoak 21, larunbata. 16:30ean**

ASKOTARAKO ARETOA, IPARRALDE GIZARTE ETXEA.

### “Ka fanga di musoma”
### “Emakumeen boterea”
### “El poder de las mujeres”
### III.BILERA

Herritar guztiei irekitako bilera, hainbat jarduera izango dituena. Honakoak: hitzaldi bat, Maliko emakumeek gaur egungo gizartean duten eraginaz; dantzen erakustaldia; eta Maliko jan-edarien dastatzea.

**Sábado, 21 de marzo, 16:30 h.**

SALA POLIVALENTE, CENTRO CÍVICO IPARRALDE.

### III ENCUENTRO
### “Ka fanga di musoma”
### “Emakumeen boterea”
### “El poder de las mujeres”

Encuentro abierto a la ciudadanía en general que consta de una charla sobre el impacto de las mujeres de Mali en la sociedad actual, exhibición de danzas y degustación de comida y bebida de Mali.

## ASVE (EUSKADI ETA EKUADOR ARTEKO ELKARTASUNA)
## ASVE (SOLIDARIDAD VASCO ECUATORIANA)

info@asve.org

2005ean sortu zuten; ongintza publikoko eta irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko bat da. Bere ezaugarriak ondokoak dira: entitate apolitikoa da; eta ez du arrazaren, nazionalitatearen edo erlijioaren araberako bereizketarik egiten.

Euskadi eta Ekuador arteko Elkartasuna Elkarteak (ASVE) hiru esparrutan egiten du lan: garapenean laguntzea, kulturen arteko sentsibilizazioa; eta azken urteotan bere proiektuetan genero-ikuspegia txertatzen hasi dira.

2010etik –urte hartan ASVE elkarteak parte hartu zuen Gasteizen bizi diren emakume migratzaileen egoera aztertzeko azterketa-diagnostikoa egiteko prozesuan–, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bere jardueren ardatz nagusi bihurtu da, bai Ekuadorren lan egiten dugun pertsonengan dugun eraginari dagokionez, bai gure elkartearen barruan dugun eraginari dagokionez ere.

Constituida en el 2005, es una persona jurídica, de beneficencia pública y sin fines de lucro, que se caracteriza por ser una entidad apolítica, sin distinción de razas, nacionalidad, ni religión.

La Asociación Solidaridad Vasco-Ecuatoriana (ASVE) es una asociación que trabaja en tres vertientes: cooperación al desarrollo, sensibilización intercultural. En los últimos años empezamos a incluir la perspectiva de género en nuestros proyectos e iniciativas.

Desde 2010, año en el que ASVE participa en la realización de un estudio-diagnóstico para analizar la situación de las mujeres migrantes residentes en el municipio de Vitoria-Gasteiz, la igualdad de mujeres y hombres pasa a ser un eje central en nuestras actividades, tanto en la incidencia en Ecuador con quienes trabajamos, como en el seno de la propia asociación.

**Martxoak 27, ostirala. 19:00etan**

ORTUÑO ARETOA. MONTEHERMOSO KULTURUNEA.

### JARDUERA

## “Emakume-aztarnak”

Zenbait gaztek egindako bideo bat jarriko dugu. Bideoan emakume lider batzuen istorioak, euren ekimenak eta egunero-egunero ingurunean zein gizartean eskubide- eta aukera-berdintasuna lortzeko egiten duten lana aurkeztuko dira.

Haiek ezagutzen dituzten emakume batzuen adibideak ere ikus daitezke, (iraganekoak zein gaur egunekoak), eta nola ikusten dituzten etorkizuneko emakumeak.

Jarduera osatzearren, emakume horien istorioa aurkeztuko duen eztabaida-antzerkia egingo da.

**Viernes, 27 de marzo, 19:00 h.**

SALA ORTUÑO. CENTRO CULTURAL MONTEHERMOSO.

### ACTIVIDAD

## “Huellas de mujeres”

Se proyectará un vídeo realizado por un grupo de personas jóvenes, donde se presentan las historias de mujeres lideresas, su incidencia y lucha diaria por alcanzar la igualdad de derechos y oportunidades ya sea en su entorno o a nivel social.

También se podrán visualizar ejemplos de mujeres que ellas y ellos conozcan, ya sean del pasado o del presente y cómo ven a las mujeres del futuro.

Para complementar la actividad se realizará un teatro debate que represente la historia de estas mujeres.

# ESKUBIDE-BERDINTASUNAREN ALDEKO EMAKUMEEN ELKARTEA (MUID)
# ASOCIACIÓN MUJERES UNIDAS POR LA IGUALDAD DE DERECHOS (MUID)

**HELBURUAK:**

1– Herritarren parte hartzea sustatzea, zehazki, Pakistaneko emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoan parte hartze handiagoa izan dezaten sustatzea.

2– Pakistaneko emakumeen jabekuntza lortzeko zenbait ekintza gauzatzea sentsibilizazioaren, heziketa eta gizarte-mugimenduen bidez.

3– Emakumeen familia-nukleoak Euskadin integratzea, bereziki, garapen osoko prozesuetan diren seme-alabak, gizarte-bazterketa saihestearren.

**FINES:**

1– Fomentar la participación ciudadana en particular de las mujeres pakistaníes en la Comunidad Autónoma de País Vasco.

2– Desarrollar acciones que permitan el empoderamiento de las mujeres pakistaníes a través de procesos de sensibilización, educación y movilización social.

3– Integrar a los núcleos familiares de las mujeres en el País Vasco, en particular hijas e hijos en procesos de desarrollo integral para evitar la exclusión social.

**Martxoak 28, larunbata. 18:30ean**

ORTUÑO ARETOA. MONTEHERMOSO KULTURUNEA.

## “Pakistaneko emakumeek berdintasunerako bidean egiten dituzten ekarpenak”

Kultura guztietan, herrialde guztietan hainbat emakumek egiten dute lan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean aurrera egiteko helburua lortzearren.

Pakistaneko emakumeak ez daude desberdintasunen izaera unibertsaletik at, ezta euren eskubideen aldeko aldarrikapen eta borrokatik at ere. Hori dela eta, jarduera honen bidez, Eskubide berdintasunen aldeko emakumeen MUID elkarteak ikusteko moduan jarri eta nabarmendu nahi ditu Pakistaneko zenbait emakume, euren herrialdean urrats handiak eman edota ematen dituztelako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko.

**Sábado, 28 de marzo, 18:30 h.**

SALA ORTUÑO. CENTRO CULTURAL MONTEHERMOSO.

## “Aportaciones de las mujeres pakistaníes en el avance hacia la igualdad”

En todas las culturas, en todos los países, hay mujeres que trabajan con el objetivo de avanzar en el camino hacia la igualdad entre mujeres y hombres.

Las mujeres pakistaníes no son ajenas a este carácter universal de la desigualdad, ni tampoco a esta lucha y reivindicación por sus derechos, por ello, con esta actividad la asociación de Mujeres Unidas por la Igualdad de Derechos MUID, quiere visibilizar y destacar a las mujeres pakistaníes que en su país han dado y/o están dando grandes pasos en el avance hacia la igualdad de mujeres y hombres.